



## KABLE BIDEZKO GARRAIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA

### TXOSTEN HONEN XEDEA

Memoria ekonomiko honen xedea honako hau da: xedapen orokor bat izapidetzeari atxikitako betebegar instituzionalak betetzea, 2/2017 Legegintzako Dekretuak, urriaren 19koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onesten duenak, eta 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, xedatzen dutenari jarraikiz.

Ildo beretik, gogoan izan, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan eta 464/1995 Dekretuan xedatzen denez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak gauzatuko duela lege-aurreproiektuen ekonomia- eta arau-kontrola (hau da, EAEko Administrazio Orokorraren organo eta erakundeen sorrera eta ezabaketa, aldaketak eta berregituraketak ikuskatzea, baita organo eta erakunde horien eragin ekonomikoa ere), betiere legegintza-ekimena sustatu duen organoak egindako dokumentu bat abiapuntu hartuta; dokumentu horrek goian aipatu dugun erregelamendu-arauaren 42. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako gutxieneko edukia bildu beharko du.

Bestalde, 8/2003 Legeari jarraikiz, xedapen orokorrak onartzeko espedienteen kasuan, arauak eragingo duen kostuaren zenbatespena agertuko duen txosten ekonomiko bat erantsi behar da.

### PROPOSATUTAKO XEDAPENA BARNE HARTZEN DUEN AURREKONTU- ETA EKONOMIA-PROGRAMA IDENTIFIKATZEA

Xedapena «5141 Garraioaren plangintza» programaren barnean dago, eta haren arduraduna da «08 Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa. Garraio Plangintzaren Zuzendaritza».

1/2021 Legeari, otsailaren 11koari, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenari, zegokion memorian adierazten zen eginkizun den mugikortasun jasangarriaren legeak ahalbidetuko duela kudeaketa-sistema integratu eta jarduleen koordinazioko osagai erkide guztiak bateratzea, zerbitzua ematea bermatuz, haien arteko lankidetzak ekonomiko eta teknologikorako elkarlan-mekanismo guztiak eratuz, eta ingurumenaren ikuspegitik jasangarrienak diren garraiobideak eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako lagungarri izango diren energia garbien erabilera sustatuz, irisgarritasun unibertsalaren alde egin eta kalitatezko garraioa sendotuz. Azkenean ebatzi da egokia eta bidezkoa zela kable bidezko garraioa lege-mailako arau batez erregulatzea, mugikortasun jasangarriaren lege-proiektutik berezitura.



Bidenabar, kable bidezko garraioari dagokionez, aipatu memorian esaten da, zuzendaritza honi esleitu zaizkion eskumenen barruan, eutsi egingo zaiela kable bidezko instalazioen ikuskapen-lanei eta, behar denean, haiek abian jartzeko baimenei.

**Araua indarrean sartzean haren eragina nozituko duten helburuak, ekintzak eta adierazleak zeintzuk diren zehaztea, eta horietan aldaketarik egin ote den zehaztea.**

Arauk honako helburu, ekintza eta adierazleengan du eragina:

**1. HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA**

**EKINTZA:** lurralde mugakidetako administrazioekin koordinazioa sustatzea, garraio-gaietako lurralde-plangintzetan.

**ADIERAZLEA:** Mugikortasun Jasangarriaren Legea.

**2. HELBURUA: PERTSONAK ETA SALGAIAK GARRAIATZEKO POLITIKA**

**EKINTZA:** kable bidezko garraioari dagokionez, zuzendaritzari honi esleitu zaizkion eskumenen barruan, eutsi egingo zaie kable bidezko instalazioen ikuskapen-lanei eta, behar denean, haiek abian jartzeko baimenei ere.

**ADIERAZLEA:** funikularren ikuskapena.

**EUSKADIKO OGASUN NAGUSIAREN BEREZKO GAIETAN ERAGINA EDO ONDORIOA DUTEN XEDAPENENKO ALDERDIAK IDENTIFIKATZEA.**

Lege-aurreproiektuak kable bidezko garraio-instalazioekin zerikusia duen eskumen-araubidea erregulatzen du, baita instalazio horien eraikuntzaren, zerbitzuan jartzearen, ustatzearen eta ikuskatzearen administrazio-araubidea ere. Lege-aurreproiektuak barnebiltzen duen erregulazioak ez du zuzeneko eraginik Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 1.2 artikuluan zerrendatutako gaietan.

Horregatik, gaur egun dauden **zerbitzu publikoko igogailuei** dagokienez, lege-aurreproiektu honek ezartzen duen erregulazioaren xedekoak ez badira ere, bai azpimarratu behar dela **Bigarren Xedapen Iragankorrean** esaten dena, han aurreikusten baita Eusko Jaurlaritzan subrogatuko direla, emakida-erakunde den aldetik, administrazio-emakida duten edo izan duten hiri-eremuko zerbitzu publikoko igogailuak kokatuta dauden udalerrietako udalak; eta emakida horiek indarrean jarraituko dutela emakida-kontratuan ezarritako baldintzetan, eta administrazio-kontratazioa arautzen duen legeria eta aplikagarria zaien ikuskapen- eta zehapen-araubideak bete beharko dituztela.

Bigarren Xedapen iragankor horren esparruan barnean daude ondorengo **zerbitzuko publikoko igogailu** hauek:

- **Solokoetxeko igogailua.** Solokoetxeko igogailua, Bilboko Iturribide kaleko 10.ean dago eta Ascensores de Solocoeche SA sozietate anonimoak kudeatzen du, Bizkaiko Herri Lanen Buruzagitzaren emakidaren bitartez; 1934ko abenduaren 17an egin eta Bizkaiko Jaurerriko Aldizkari Ofizialean 1934ko abenduaren 19an argitaratutako ebazpenaz eman zitzaion, ebazpenean bertan jasota datorren baldintza-agiriaren arabera

eta 1877ko apirilaren 13ko Lan Publikoetako Lege Orokorrari eta aplikagarria zen gainerako araudiari men eginez. Emakida duen enpresak kudeatzen du zerbitzua arrisku eta menturara, administrazioarentzat kostu ekonomikorik gabe.

Administrazio eskumenduna: Lege-aurreproiektua aplikatuta (bigarren XIa), Bilboko Udala izango da administrazio eskumenduna aurrerantzean, Bilboko udalerrian dagoelako kokatua igogailua.

- **Begoñako igogailuak.** Bilboko Itxaropena kalean daude eta Ascensores de Begoña SA sozietate anonimoak kudeatzen ditu, Bizkaiko Herri Lanen Buruzagitzaren emakidaren bitartez; 1943ko abenduaren 30ean egin eta Bizkaiko Jaurerriko Aldizkari Ofizialean 1944ko urtarrilaren 19an argitaratutako ebazpenaz eman zitzaion, ebazpenean bertan jasota datorren baldintza-agiriaren arabera eta 1877ko apirilaren 13ko Lan Publikoetako Lege Orokorrari eta aplikagarria zen gainerako araudiari men eginez.

Zerbitzua aldebakartasunez utzi eta instalazioak 2014ko uztailaren 9tik aurrera itxi zirenetik, une honetan emakida iraungita dago enpresa emakidadunak hala eskatuta, zerbitzuaren ustiapenari eusteko gerora etorritako ezintasuna dela eta (AGE 689/2018, apirilaren 26koa; eta AGE 1291/2018, uztailaren 18koa). Emakida kitatzea izapidetze-fasean dago, epaia egikaritzeko; eta instalazioen titularra izaten jarraitzen du Ascensores de Begoña SA enpresak.

- Administrazio eskumenduna: Lege-aurreproiektua aplikatuta (bigarren XIa), Bilboko Udala izango da administrazio eskumenduna aurrerantzean, Bilboko udalerrian dagoelako kokatua igogailua.

- **Arangoitiko igogailuak.** Bilboko udalerrian dagoen Arangoitiko igogailuaren garraio-zerbitzuaren kudeaketa Fincas y Transportes SA sozietate anonimoari eman zitzaion Bizkaiko Herri Lanen Buruzagitzaren 1954ko ekainaren 2ko ebazpenaren bitartez; Bizkaiko Jaurerriko Aldizkari Ofizialaren 64. zenbakian, 1954ko ekainaren 9koan eman zen argitara, ebazpenean bertan jasota datorren baldintza-agiriaren arabera eta 1877ko apirilaren 13ko Lan Publikoetako Lege Orokorrari eta aplikagarria zen gainerako araudiari men eginez.

Zerbitzua aldebakartasunez utzi eta instalazioak 2010eko abenduaren 16tik aurrera itxi zirenetik, une honetan emakida iraungita dago emakidadunaren ez betetzeagatik (EAEANE 466/2013, 2013.09.10ekoa; AGEak berretsia, 2015.05.05ean). Emakida ez da kitatu eta instalazioen titularra izaten jarraitzen du Fincas y Transportes SA enpresak.

- Administrazio eskumenduna: Lege-aurreproiektua aplikatuta (bigarren XIa), Bilboko Udala izango da administrazio eskumenduna aurrerantzean, Bilboko udalerrian dagoelako kokatua igogailua.

Bestalde, **Hirugarren Xedapen Iragankorrek** aipatzen dituen kable bidezko garraio-instalazioei dagokienez, esan behar da Euskal Autonomia Erkidegoan ondorengo **garraio publikoko funikular** hauek daudela:

- **Reinetatik Escontrillarako funikularra Trapagaranen.** Reinetako funikularrak Escontrilla eta Reineta auzuneak komunikatzen ditu Trapagaran udalerrian.

Funikularraren garraio-zerbitzua 1926an jarri zen abian eta ondasun kulturalaren izaera du monumentu-multzoaren kategoriarekin, 150/2014 Dekretuak, uztailaren 15ekoak, aginduta. Gaur egun Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SAU, pertsona bakarreko sozietate anonimoak kudeatzen du zerbitzua 214/1994 Dekretuak, ekainaren 21ekoak (EHAA 124, 1994ko ekainaren 30ekoa), funikular hori ustiatzeko egindako esleipenean oinarrituz.

Administrazio eskumenduna: Gaur egun, Eusko Jaurlaritza da zerbitzu horren eskuduntzaren titulartasuna duen administrazioa, AEaren 10.32 artikulua bidez; eta Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos sozietate publikoaren bitartez kudeatzen du hura. Lege-aurreproiektua aplikatuta (5. artikulua), Eusko Jaurlaritza izango da aurrerantzean ere administrazio eskumenduna, Trapagaran udalerririk berrogeita hamar mila biztanle baino gutxiago dituelako.

**-Mamariagako funikularra Santurtzin.** Metro Bilbaoren osagarria den bidaiari-garraiorako zerbitzua egiten du. Haren betekizuna da Metro Bilbaoren Santurtziko geltokia Mamariagako Itsasoko Amaren plazako goiko geltokiarekin lotzea.

Administrazio eskumenduna: Gaur egun, Eusko Jaurlaritza da zerbitzu horren eskuduntzaren titulartasuna duen administrazioa, AEren 10.32 artikulua bidez, eta Metro Bilbao SAK ustiatzen du metro-zerbitzuarekin batera; eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren esanera ipini dira azpiegitura- eta ekipamendu-lanak, 2010eko irailaren 1eko emate-aktaren bitartez. Lege-aurreproiektuak funikular horren eskuduntza-araubideari ez diola eragiten deritzogu, hain zuzen ere instalazioa Santurtziko udalerrian, berrogeita hamar mila biztanle baino gutxiagokoa egoteaz gain, Bilboko Metroarekin batera ustiatzen baita, arestian esan den moduan.

**-Artxandako funikularra Bilbon.** Gaur egun Funicular de Artxanda SA udal-enpresak kudeatzen du funikularraren garraio-zerbitzua; 1915eko abuztuaren 27ko Sustapen Ministerioaren Errege Aginduaren bitartez eman zitzaion 99 urterako, eta 2011.12.28ko ebazpenez luzatu egin zitzaion beste bi urtez. Funicular de Artxanda SA enpresa Bilboko Udalaren jabetzako merkataritza-sozietatea da, eta aipatu funikular horrez gain zerbitzua doan eskaintzen duten beste berrogeita bost (45) igogailu publiko kudeatzen ditu Bilbo osoan.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saileko Zerbitzuen Zuzendariaren 2019ko ekainaren 19ko Ebazpenez, erabaki zen Funicular de Artxanda SA sozietate anonimoak zerbitzua ematen jarraitzea; eta bidenabar, administrazioak egindako inbentarioan agertzen diren ondasunen itzulketak data atzeratzea, hitzarmena, itzulketaren baldintzak zehaztuko dituen, zertzen den arte.

Administrazio eskumenduna: Lege-aurreproiektua aplikatuta (hirugarren XIa), Bilboko Udala izango da aurrerantzean ere administrazio eskumenduna, hura baita Funicular de Artxanda SA sozietate anonimoaren bitartez Artxandako funikularraren zerbitzua kudeatzen ari dena.

**-Igeldoko funikularra Donostian.** Funikularraren garraio-zerbitzua Monte Igueldo SA enpresak kudeatzen du gaur egun arrisku eta menturara; 1912ko abenduaren 27ko Sustapen Ministerioaren Errege Aginduaren bitartez eman zitzaion laurogeita hemeretzi urterako emakida, eta 2011.12.28ko ebazpenez luzatu egin zitzaion beste bi urtez.

Funikular horrek ondasun kulturalaren izaera du, monumentu-multzoaren kategoriarekin, 84/2014 Dekretuak, maiatzaren 27koak, aginduta.

Ondasunen itzulketaren espedientearen inguruan emandako EAEANEak, 2015.05.20koak, AGEak, 2017.10.16koak, berretsiak, eta 1912.12.27ko Errege Aginduaren aurka emakidadunak aurkeztutako ofiziozko itzulketa-eskabideko espedienteari buruz emandako EAEANEak, 2019.02.26koak, AGEak, 2020ko urriaren 1ekoak, berretsi duenaren ondotik, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saileko Zerbitzuen Zuzendariaren 2020ko urtarrilaren 10 Ebazpenaren bidez, onetsi zen administrazioak egindako inbentarioan agertzen diren ondasunen itzulketa-data atzeratzea hartarako errekerimendua egiten den arte. Hala berean, ebatzi zen Monte Igueldo SA enpresak zerbitzua ematen jarrai zezala, emakida-pleguan jasota datozen baldintzetan egiteko gaituta geratzen zela, zerbitzu publikoaren kudeaketa-kontratua egikaritzea esleitzen den arte eta, edonola ere, gehienera 24 hilabeteko epean.

Arestian esan den moduan, Monte Igueldo SA enpresak kudeatzen du zerbitzua arrisku eta menturara, administrazioarentzat kostu ekonomikorik gabe.

Administrazio eskumenduna: Lege-aurreproiektua aplikatuta (hirugarren XIa), Donostiako Udala izango da aurrerantzean administrazio eskumenduna.

## **ARAU APLIKATZEAK BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEI, PARTIKULARREI ETA, ORO HAR, EKONOMIARI EKARRIKO LIOKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA.**

Lehen ere adierazi dugunez, lege-aurreproiektuak izapidetzeko, memoria ekonomiko bat aurkeztu behar dela ezartzen du gure antolamendu juridikoak. Memoria horrek osatuko du 2/2017 Legegintzako Dekretuan, urriaren 19koan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzekoan (464/1995 Dekretuak, urriaren 31koak garatutakoan) nahitaez egiteko agintzen duena, eta aurreproiektua indarrean jartzeak lekarkeen eragin ekonomikoa zenbatetsiko du.

Memoria honen beste atal batean aztertu dugunez Kable bidezko Garraioaren Legearen eragin ekonomikoa (orokorra eta antolaketari dagokiona), atal honetan, legegintza-ekimen horrek EAEko beste administrazio publiko batzuentzat, partikularrentzat eta, oro har, ekonomiarentzat dituen eragin ekonomikoak aztertuko dira.

### **Ekimenaren eragin ekonomikoa foru-aldundietan**

Lege-aurreproiektua indarrean sartzeak ez du eragin ekonomikorik foru-aldundietan, ez baitie eskuduntzarik esleitzen gai horretan.

### **Ekimenaren eragin ekonomikoa udalbatzetan**

**Hiriguneetako kable bidezko garraio-zerbitzuei** dagokienez, haiek ezartzeko, kudeatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko eskuduntzak esleitzen dizkie lege-aurreproiektuak 50.000 biztanle baino gehiagoko udalei, baita Eusko Jaurlaritzan subrogatzeko aukera ere, administrazio-emakida duten edo izan duten zerbitzu haietan.

Igeldoko funikularrari dagokionez, Monte Igueldo SA enpresak kudeatzen du arrisku eta menturara; beraz, lege-aurreproiektuan xedatzen denak ez du eragin ekonomiko zuzenik Donostiako Udalean.

Artxandako funikularrari dagokionez, esan behar da Bilboko Udalak kudeatzen duela hura aspaldi-aspalditik, Funicular de Artxanda SA enpresa emakidadunaren jabea baita; beraz, lege-aurreproiektuak ez du aparteko eragin ekonomikorik izango.

Lege-aurreproiektuaren bigarren Xedapen Iragankorrak aipatzen dituen **administrazio-emakidako araubidez ustiatzen diren edo ustiatu diren zerbitzu publikoko igogailuei** dagokionez, azpimarratu behar dugu Solokoetxeko igogailua enpresa emakidadunak arrisku eta menturara ustiatzen duela; beraz, lege-aurreproiektuan xedatzen denak (2. XIa) ez du eragin ekonomiko zuzenik Bilboko Udalean. Begoñako eta Arangoitiko igogailuen kasuan, dagozkien emakidak iraungita daude enpresa emakidadunek, instalazioen jabe izaten jarraitzen dutenek, ustiapena bertan behera utzi zutenetik. Lege-aurreproiektuan xedatzen denaren eragin ekonomikoa, Bilboko Udalak igogailu horiei buruz hartzen dituen erabakien arabera izango da. Hori horrela, gogoan izan behar dugu udal horrek kudeatzen dituela jada erabilera publikoko berrogeita bost igogailu, guztira, Funicular de Artxanda SA udal-sozietatearen bidez.

### **Ekimenaren eragin ekonomikoa enpresan.**

16/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzekoak, 6. artikuluan xedatzen duenari dagokionez, enpresak eratu, abian jarri eta funtzionatzean kable bidezko garraioaren lege-aurreproiektuak duen eraginari buruz, esan behar dugu arau horren xedea dela kable bidezko garraio-instalazioen proiektzioa, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea, instalazio horiek oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean badute ibilbidea.

Horretarako, abiapuntutzat hartu da 16/1987 Legea, uztailaren 30ekoa, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoa; eta zehazkiago, 4/1964 Legea, apirilaren 29koa, Teleferikoen Emakidari buruzkoa; eta 673/1966 Dekretua, martxoaren 10ekoa, haren aplikazio-erregelamendua onartu zuena; aldez aurretiko emakida edo baimen administratibo bat edukitzearen mende ipintzen zuten jada haiek jarduketa hori.

Halaber, lege-aurreproiektuak men egiten dio 2016/424 (EB) Erregelamenduari, 2016ko martxoaren 9koari, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoari eta 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzen duenari. Arauak ezartzen ditu kable bidezko garraio-instalazioen segurtasuneko azpisistemak eta osagaiak merkaturatu eta askatasunez zirkulatzeko, baita haiek diseinatu, eraiki eta zerbitzuan jartzeari buruzko arauak ere.

Azkenik, azpimarratu behar da eraikuntza eta eraikingintzari, makineriaren instalazio eta funtzionamenduari, segurtasunari, suteak prebenitzeko sistemei, ingurumenaren babesari eta irisgarritasunari dagokionez, indarrean dauden xedapenei egiten diela men lege-aurreproiektuak betebeharrak berririk sortu gabe.

### **Ekimenaren eragin ekonomikoa partikularretan eta, oro har, ekonomian.**

Lege-aurreproiektuak ez du inolako eragin ekonomiko zuzenik partikularretan, ez eta ekonomian ere.

**Ivan Pedreira Lanchas**  
**Garraio Plangintzaren zuzendaria**  
**Elektronikoki sinatua**